



Osakidetza


EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

Medikuntza Intentsiboa

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Guruztetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.
<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



MEDIKUNTZA INTENTSIBOA

Medikuntza Intentsiboa espezialitate mediko-kirurgikoa da eta bizi-euskarriaren neurriez arduratzen da bai eta organo eta sistemen mantentzeaz ere. Horretarako beharrezkoak diren teknika eta baliabide guztiak erabiltzen ditu, azpiko prozesuaren itzulgarritasuna beharrezko baldintza izanik. Gure espezialitatea oso zabala da eta gainontzeko espezialitate mediko eta kirurgikoen zati garrantzitsu bat biltzen du, hori dela eta, erabateko prestakuntza behar da.

Gure ospitaleak eta gure zerbitzuak Medikuntza Intentsiboan prestatzeko aukera zoragarria eskaintzen dute, kontuan izanik ditugun baldintzak eta garatzen dugun presio kliniko-asistentzial handia. Prestakuntza Gaitasunetan oinarritzen dugu eta Espezialitatearen Programa Nazionala erabiltzen dugu, bai eta paziente Kritikoentzako Gaitasunen Europako Programa (CoBaTryCe) ere.

Jarraian zehaztuko dugu:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Nor gara



Zerbitzburua:
Fermin Labaien Beraza dk.



Atalburua:
Mª Victoria Boado Varela dk



**Medikuntza Intentsiboko
egoiliarren tutorea:**
José Luis Moreno Gómez dk.



Errotazioko egoiliarren tutorea:
Iratxe Seijas Betolaza dk.



Erizaintzako Ikuskatzailea:
María Asunción Leirana Fernández

Gure ospitaleko Medikuntza Intentsiboko zerbitzua 1975. urtean eratu zen eta urte beretik gradu ondoko prestakuntzarako akreditatuta dago eta urtero bi plaza BAME ditu. Ordutik, gure zerbitzuan espezialista asko prestatu dira. Barne-medikuntza, Anestesiologia eta Kardiologiatik zetozen espezialistekin hasi zen, izan ere, urte eta paziente asko eta gero, intentsibistak bilakatu ziren eta gure espezialitatea aberastu zuten beren ezagutza eta ekarpenekin. Gogoratu behar dugu gurea espezialitate modernoa dela, enborreko ezagutza eman ziguten beste batzuen bidez eratu zela, baina garatu heinean medikuntza kliniko modernoaren oinarritzko adarra bihurtu dena. Ezin dira ez



medikuntza ez bere aurrerapenak ulertu paziente kritikoaren eta bere zainketaren esku-hartzerik gabe.

Gure zerbitzua doktore hauek gidatu dute: Luis Fernando Gárate Berasaluce, Luis Cobo Elosua (atalburua eta jarduneko zerbitziburua zenbait urtetan) eta azkenik, Fermín Labayen Beraza (gaur egun Ospitaleko zuzendari medikoa). Gaur egun kudeaketaren ardura Patxi Layuno Laucirica dk. da. Urte horietan lankide ugari izan ditugu alboan eta hemendik gure maitasuna eta omenaldia adierazi nahi diegu.

Urte horietako ekintzarik esanguratsuenak hauek izan dira:

- 1975. urtean zerbitzua eratzea.
- 1977. urtean Medikuntza Intentsiboko atala den Unitate Koronarioa eratzea.
- Medikuntza Intentsiboko atal bietarako talde medikoak prestatzea: Koronarioak eta Balioaniztunak, atal buruzagitzarekin.
- Erredura Handietako pazienteen tratamendua esleitzea, Kirurgia Plastikoko Zerbitzuarekin lankidetzan.
- 2000. urtean Medikuntza Intentsiboko Unitate berria berritu eta zabaltzea, kokapen berria Ospitaleko bosgarren B solairua izanik.
- Ospitaleko gainontzeko zerbitzuekin lankidetzan hurbila eta, era berean, zenbait zereginetarako profesionalak lagatzea, batez ere transplante eta emate alorrean.
- Ospitaleko Kirurgia Kardiobaskularreko eta konplexutasun handiko beste kirurgietako ardura.
- Espezialitatearen Biltzar Nazionalaren antolaketa (2011) bai eta eskualde-mailan ere. Espezialitateko elkarte zientifikoetan parte-hartze aktiboa.
- Hainbat patologietako erreferentzia zentroa, nabarmendu: Kirurgia Kardiakoa, Erredura Handiak, ECMO (zirkulazio eta/edo arnas asistentzia), plasmaferesia, giltzurruna ordezkatzeko teknikak, etab.
- Ospitaleko Unitate Koronarioaren esleipena Kardiologia zerbitzura.
- 2012. urtetik UPV/EHUko Medikuntza Sailarekin lankidetzan, Medikuntza praktikak egiteko (5. maila).



Zerbitzuaren langileak, 2014ko otsailean, hauek dira:

- 1 zerbitzu burutza: Fermín Labayen Beraza dk.
- 1 atal burutza: Patxi Joseba Layuno Laucirica dk. (gaur egun jarduneko zerbitziburua)
- 15 mediku adjuntu.
- 1 Bizkaiko transplanteen mediku adjuntu koordinatzailea.
- 6 Barne-mediku egoiliar.
- 2 Erizaintzako ikuskatzaile, 45 erizain, 25 erizain laguntzaile eta zelari 1.

MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Zerbitzua deskribatu baino lehen, gogoratu behar dugu gure ospitaleak ia 1000 ospitalizazio ohe dituela eta patologiarik larrienentzat eta espezializatuentzat erreferentzia zentroa dela, hauek guztiak, adibidez: transplantea, kirurgia kardiakoa, erredura handiak, kirurgia torazikoa, neurokirurgia, zirkulazio-asistentzia vs arnas-asistentzia (ECMO), etab. Hori dela eta, aukerarik onenatariko bat da prestakuntza zehatza aukeratzeko orduan.

Gure zerbitzua Guruztetako Unibertsitate Ospitaleko 5. solairuan dago (A/B aldea). Medikuntza Intentsiborako 24 ohe ditu, beharrezkoa den hornikuntza zein azpiegitura guztiarekin, edozein paziente kritiko mota artatzeko. Gure ondoan, Unitate Koronarioa (8 ohe) eta Erredura Handietako Unitatea (5 ohe) daude, azken hori estatuko ipar eremuko paziente erreen erreferentziako zentroa da eta unitate biek in harreman profesional hurbila daukagu.

Balio anitzeko izaera duen unitatea gara, hori dela eta, edozein gisako eta egoera klinikoko pazienteak jasotzen ditugu. Gure jardueren artean hauek azpimarratu behar ditugu: Kirurgia Kardiakoko operazio-ondokoa, sepsia eta shock septikoaren tratamendua eta pazienteen maneia eta tratamendua, bai erredura handikoena, bai edozein mediko motako eta/edo kirurgia-ondoko pazienteena. Gainontzeko kirurgiak Bizkortze Unitatera esleituta dauden arren, hainbat paziente ditugu kirurgia-ondoko eta/edo berehalako operazio-ondoko konplikazioetatik datozenak.

Aipatu behar da aireztapen mekanikoa behar duen arnas gutxiegitasuna ospitalizaziorako arrazoia dela eta/edo akats organikoaren arrazoia (beste patologia baten barruan) eta sostengu tratamendua behar duela, izan ere, gure unitatean paziente asko daude teknika hori behar dutenak. Halaber, nabarmentzekoa da Medikuntza Intentsiboak A gripean egindako lana, hain zuzen ere, arnas distresseko koadro konplexuak arnas laguntza behar duen helduarekin.



Horrez gain, bide zentralen kanalizazioa gure ardura da, ospitale guztirako, bai eta etxeko bihotz-biriketako gelditze kasuen lehenengo erantzuna ere. Horrek ospitaleko zerbitzu guztiekin (larrialdiak eta espezialitate guztietako ospitalizazio solairuak) kontaktu hurbila eta zabala izatea dakar.

Ezin dugu ahaztu gure lanbideari lotutako lan administratiboa: txostenak eta datu-baseak betetzea, saio klinikoak prestatzea, irakaskuntza eta ikerketa, ospitale-batzordeak, etab. Bestalde, adierazi behar dugu gure zerbitzua UPV/EHUko Medikuntza sailarekin lankidetzan dagoela 5. mailan dauden medikuntza ikasleen eskola praktikoetan. Gainera, UPV/EHUko Erizaintzako praktikan zein irakaskuntzan parte hartzen du. Erizaintzako langileekin daukagun harremana garrantzitsua da, izan ere, ematen dugun asistentziaren kalitatea bermatu behar dugu.

Adibidez, 2012. urtean izan ditugu: 1126 ingreso; 6494 egonaldi; 109 hildako (heriotza-tasa 9,8); batez besteko egonaldia 5,7 eta okupazio indizea %80. Urteko 1000 bide zentral baino gehiago. Gure patologiarik ohikoena hauetatik dator: kirurgia kardiakoa, sepsia eta infekzio-prozesuak, pneumologia, digestiboa, onkologia eta hematologia, erredura handiak ahaztu gabe (konplexutasun handiko pazienteak). Gure paziente askok aireztapen mekaniko inbaditzailea eta ez inbaditzailea dute, bai eta giltzurrun-ordezkatze terapiak ere. Horrek guztiak erakusten du jasotzen dugun asistentzia-presio zabala eta ospitale guztian daukagun presentzia, zerbitzu zentrala eta itxia izan arren.

Gure Unitatean ia-ia espezialitateko teknika eta prozedura berezi guztiak egin ditzakegu: zirkulazio-/arnas asistentzia (ECMO); BCPIAo; giltzurruna ordezkatzeko teknikak; plasmaferesia; elikatze artifiziala; monitorizazio inbaditzailea eta ez inbaditzailea; aireztapen mekanikoa; sedazioa eta analgesia, etab....

Unitatearen eguneroko lana lanorduetan egiten da 8:00etatik 15:00etara, ondoren zerbitzuko guardia medikoa egiten da eta honela banatzen da:

- 8:30 h.: guardia-pasea.
- 9:15 h.: zerbitzuaren saio klinikoa asteazken eta ostiraletan. Ostegunetan egoiliarren saioa.
- 10:00etatik 12:30era.: bisita-pasea.
- 12:30etik 13:00etara: informazioa senideei.
- 13:00etatik 14:00etara: zerbitzuaren saio kliniko orokorra eta pazienteen eta guardiaren orientazioa.
- 14:00etatik 15:00etara: programatutako kirurgiak dituzten pazienteak ingresatzeko harrera.



- 15:00etatik hurrengo eguneko 8:00etara: Unitateko guardia.

Medikuntza Intentsiboko guardia-taldea 2 mediku adjuntuk eta mediku egoiliar batek osatzen dute. Guardia bitartean hauek dira beren eginkizunak: ingresatutako pazienteak egonkortzea, paziente berriak jaso eta ingresatzea (eta diagnostikorako eta tratamendurako beharrezkoa den guztia egitea), Unitatetik etengabeko bisita-pasea egitea eta etxeke zein Unitateko espezialisten deiei eta gertakizunei erantzutea. Unitateko guardia presentziazkoa da eta 24 orduak betetzen ditu, 365 egun urtean.

Gure langile batzuek batzorde eta/edo talde zientifikoetan lan egiten dute, horien artean hauek aipatu behar ditugu:

- J.R. Iruretagoyena dk.: SEMICYUC elkarteko gaixotasun kutsagarrien lantaldeko kidea (Sociedad española de medicina intensiva, crítica y Unidades Coronarias).
- Kepa Esnaola dk.: Guruztetako UOko eta Bizkaiko transplanteen koordinatzailea.
- Iratxe Seijas dk.: SEMICYUC elkarteko gaixotasun kutsagarrien lantaldeko kidea. Guruztetako Unibertsitate Ospitaleko Saio klinikoen Batzordearen koordinatzailea. Errotazioan dauden egoiliarren tutorea.
- Mónica Domezain dk.: Guruztetako UOko Etika Asistentzialeko Batzordekidea
- J. L. Fernández dk.: SEMICYUC elkarteko kardiologia lantaldeko kidea. Ekokardiografia.
- M.V. Boado dk.: SEMICYUC elkarteko kardiologia lantaldeko kidea. Guruztetako UOko miembro del grupo de trabajo de Cardiología de SEMICYUC. BBB (Bihotz-Biriketako Bizkortzea) Batzordekidea.
- Ainhoa Sánchez dk.: SEMICYUC elkarteko Metabolismo eta Elikadura lantaldeko kidea.
- Tomás Muñoz dk.: SEMICYUC elkarteko Sedazio eta analgesia lantaldeko kidea.
- J. L. Moreno dk.: Medikuntza Intentsiboko egoiliarren tutorea eta tutoreak prestatzeko ikastaroen ohiko laguntzailea.

Gure lanaren ezaugarriek, jasotzen dugun asistentzia-presioak eta zenbait egoeren dramatismoak bilakatzen dute gure zerbitzua giza harremanen benetako “Babel dorrea”. Izan ere, lan eta bizikidetzara ordu asko dira eta profesional ugari inplikaturik daude (erizainak, klinika laguntzaileak, zelariak, medikuak, kirurgialariak, pazienteak eta senideak, etab.), hori dela eta, gure onena eman behar dugu adeitasunezko eta errespetuzko lan giro eta lankidetzara ezartzeko, gure paziente/senideen onurarako zein gure garapen profesionalerako. Tentsio handiko ordu eta egoera asko pasatzen ditugu eta guztion artean txikitu eta buelta eman behar diegu.



Ongietorri espezialitate erakargarri eta osoari, oraindik gaztea eta prestakuntzan dagoena eta garatzeko hainbat alor dituena.

Datu gehiago izateko, gure zerbitzuak egindako urteko jarduera hemen dago eskuragarri:

[Ospitalea > Urteko Memoria Osorik “Arlo Klinikoak”](#)



Non gaude

MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean dago: Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903. Barakaldo, Bizkaia
5. solairua, A/B gunea
[Ospitalea Google Maps aplikazioan ikusi](#)

Zerbitzuaren idazkaritza Medikuntza Intentsiboko Unitatean dago: 5. solairua, B gunea.
Administrazio-idazkaria:
María Isabel Golvano Utrilla

Harremanetarako telefonoa: +34-94.600.6310

Posta elektronikoa: secretaria.ucicruces@osakidetza.net
mariaisabel.golvanoutrilla@osakidetza.net



Medikuntza Intentsiboko egoiliarren tutorea:

José Luis Moreno Gómez dk.

Harremanetarako telefonoa: 94.600.6310

Posta elektronikoa: joseluis.morenogomez@osakidetza.net



Prestakuntza-eskaintza

Barruko Mediku Egoiliarren (BAME) prestakuntzak **ARDURAK ETA GAITASUNAK MAILAKA HARTZEA** inplikatu du; era berean, prestakuntza osatzen doan heinean mediku adjuntoek gero eta gutxiago gainbegiratu beharko dute egoiliarren lana, azken horiek beharrezkoa den ardura eta gaitasun maila lortu arte, hau da, espezialista lana era eraginkorrean egin arte. Hori dela eta, ospitaleak, bere medikuen bitartez, ospitalean bertan prestakuntzan dauden egoiliarren lana gainbegiratzeko eskubidea eta beharra du; egoiliarrek, aldiz, era arduratsuan eta gainbegiratuan lan egin eta prestatzeko eskubidea eta beharra dute. Gizartearen eta gure lanbidearen eskakizun etikoa da.

Gure espezialitateak behar bati erantzuten dio: organo eta sistemen akatsen ondorioz heriotza arriskua duten patologia akutuko gaixoei zainketa bereziak egiteko beharra, hain zuzen ere. La espezialitate mediko guztien patologia biltzen ditu eta bere garapenarekin erdi-kirurgikoa bilakatu da, izan ere, pazienteak mantendu eta sostengatzeko teknika inbaditzaileak garatuz joan dira. Horregatik, gure ikerketa eta prestakuntza alorra oso zabala da, eta horrek esan nahi du prestakuntza osatzeko errotazioak egitea beharrezkoa dela. Espezialitate integratzailea da, asistentzia zatitzea saihesten duena eta pazienteak "bere osotasunean" hartzen duena. Horretarako, ezagutza berezitua eta espezifikoa behar da, ondo zehaztutako doktrina zientifikoa, berezko teknologia espezializatua eta erabateko arduraldia, espezialitatearen existentzia justifikatuz. Espezialitatearen edozein lan begiratzea nahikoa da gure prestakuntzaren "izaera globalaz" konturatzeko.

Medikuntza Intentsiboko espezialitateak 5 urteko prestakuntza eskatzen du. Horietan, egoiliarrek mediku espezialista lana egiteko beharrezkoa den gaitasun profesionala lortu behar du, eta bukaeran, beharrezkoak diren **GAITASUNAK** lortu dituela erakutsi. Medikuntza Intentsiboko Programa Nazionalean oinarritzen dugu prestakuntza. Programa hori Espezialitatearen Batzorde Nazionalak egin du, SEMICYUC elkarteak babesten du eta espezialitatearen web orrialdean ikus dezakezu (<http://www.semicyuc.org>). Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Espezialistak prestatzeko gidan zehaztuta dago, noski, bai eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioan ere. SEMICYUC **Espezialitatearen Programa Nazionala** berritzen ari da eta badaukagu jada lehenengo zirriborroa. Gainera, gure sozietateak onartutako CoBaTryCe (Capacitación basada en competencias en medicina intensiva en Europa) Proiektua jarraitzen dugu (SEMICYUC elkartearen web orrialdean ikus dezakezu). Horren gaineko egokitzapen bat egiten ari dira gaitasunen arabera Guruzetako UOrako.

Medikuntza Intentsiboko egoiliarren prestakuntzak aipatutako programak jarraitzen ditu hauen guztien bidez: errotazio-prestakuntza ibilbide sekuentzial eta mailakatua, beharrezkoak eta/edo



gomendagarriak diren zenbait ikastaro, ospitalean lanaldi osoko dedikazioa, ikasketa programatua eta pertsonala, zerbitzu eta ospitaleko saio klinikoetara nahitaez joatea eta, era berean, saio klinikoak egitea, eta azkenik, tutoreekin eta Unitateko gainontzeko kideekin etengabeko kontaktua.

Gure erakundeari eta jarduera asistentzial zabalari esker espezialitateko ezaugarri nagusietan espezialistak presta ditzakegu:

- Kirurgia kardiakoaren operazio-ondokoa.
- Beste espezialitate batzuetako operazio-ondokoa: torazikoa, neurokirurgia, orokorra, ORL, aurpegi-masailetakoa, plastikoa, urologia, etab... programatutako operazio-ondokoak (Bizkortzean oheak falta direlako) eta kirurgia-ondoko konplikazioak.
- Erredura Handietako pazienteak.
- Politraumatizatuak/Neurokritikoak (Bizkortzean oheak faltan)
- Monitarizazio inbaditzailea, elikatze artifiziala, paziente kritikoaren ekografia.
- Sepsia eta shock septikoa.
- Espezialitateetako patologia medikoak: digestiboa, pneumologia, barne-medikuntza, infekziosoak, onkologia, hematologia, nefrologia, kardiologia, neurologia, etab...
- Aireztapen mekaniko inbaditzailea eta ez inbaditzailea.
- Espezialitatearen edozein motako teknikak: giltzurruna ordezkatzeko teknikak, plasmaferesia, euskarri zirkulatorioa, pausu-markagailua, perikardiozentesia, pleura-drainadura, azal-zeharreko trakeotomia, zundaketak, etab...
- ECMO: kardiozirkulazio eta/edo arnas asistentzia (ospitaleko lantalde bat sortu da eta gure zerbitzua sustatzailea izan da)
- Aurretik deskribatutako patologietarako erreferentzia zentroa.
- Ospitalizazio solairuetan bide zentralako kanalizazioa.
- BAG (Bihotz-Arnaseko Geldialdia) kasuetan lehenengo deia/erantzuna.
- Intoxikazioak
- Haurdunaldiaren patologia kritikoak.
- Guruzetako UOko Ospitale birtualean parte-hartzea.
- SEMICYUC elkarteko zenbait lantaldetan parte-hartzea.

Ospitalearen eta gure zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanda, gure ospitaleko zein beste ospitale batzuetako espezialitate medikoetako errotazio-egoiliarrak jasotzen ditugu, horiez gain, beste ospitale batzuetako Medikuntza Intentsiboko egoiliarrak hartzen ditugu ere, azken horiek,



erreferentzia zentroa garen alorretara datoz, kirurgia kardiakoa, eredura handiak eta asistentzia kardiozirkulatorioa adibidez.

Egoiliarra ospitalean lanean hasten denean eskubide osoko kidea da eta espezialitateak irauten duen bitartean lan kontratuari dagozkion eskubide zein betebeharrak guztiak ditu. Gainera, tokatzen zaizkion guardiak egitera behartuta dago, bere prestakuntzak zehaztutako zerbitzuetan. Izaera orokorra duten finkatutako errotazioak zein pertsonalizatutako errotazioak egingo ditu eta errotazioan dabilen zerbitzuetan bertako langilea izango da.

Medikuntza Intentsiboan eta dagozkien errotazioak egin eta gero, egoiliarrek beren mediku adjuntuekin batera egiten dute lan zerbitzuan eta mailaka asistentzia eta erantzukizunaren ardura hartzen dute. Azken urtean (orokorrean) egoiliarrek lan egin eta ardurak hartu behar dituzte era autonomoan eta tutoreek gainbegiratze arina egingo dute. Nahitaez 6 guardia egin behar dituzte hilean. Egoiliarrek guardia medikoak egiten dituztenerako gainbegiratze protokoloa du zerbitzuak, bertan, jokabide arauak zehazten dira. Gure ospitalean dauden bitartean Politraumatizatu eta Neurokritoetako zerbitzuren batean errotazioa egitea aurreikusita dago, kaudimena eta prestigioa bermatzen duen hirugarren mailako ospitale batean, hain zuzen ere. Astean 2 saio kliniko egiten dira zerbitzuan eta asistentzia derrigorrezkoa da, horrez gain, egoiliarrentzako saio espezifikoak ere egiten da astean behin. Gustatzen zaigu egoiliarrak espezialitateko jardunaldietara joatea, baina betiere parte-hartze aktiboa erakutsiz, hau da, poster eta/edo komunikazioen bat aurkeztuz.

Informazio gehiagorako, gure zerbitzu-zorroa hemen ikus daiteke:

[Ospitalea > Zerbitzuen Katalogoa > INTENTSIBOA](#)

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusirik irakaskuntza jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztiek komunean dituzten oinarriko prestakuntza osatzeko. Horietako ikastaro gehienak ezinbestekoak dira azken titulua lortzeko.

Ospitaleak [Saio orokorrak \(ikusirik irakaskuntza jarduerak\)](#) antolatzen ditu hilean asteazken batean edo bitan, 8:30ean Areto Nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoetarako buruz ikasten delako, bestetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako – bai eta beren arteko erlazioa zein den ere- eta bukatzeko, hainbat batzordeen jardura garrantzitsuen berri ematen dutelako.



Astean 2 saio kliniko egiten dira zerbitzuan eta asistentzia derrigorrezkoa da, horrez gain, egoiliarrentzako saio espezifikoak ere egiten da astean behin. Era berean, zerbitzu batean errotazioan dauden bitartean, zerbitzu horrek antolatzen dituen saioetara joatea derrigorrezkoa da eta eskatuz gero, saioa egin eta aurkeztea ere. Bigarren urtetik aurrera egoiliarrek zerbitzuko saio klinikoaren elaborazioan eta aurkezpenean parte hartu beharko dute. Ezin ditugu ahaztu goizeko eta eguerdiko “guardia pasea” osatzen duten eguneko saio biak.

Gustatzen zaigu egoiliarrek espezialitateko jardunaldietara joatea, baina betiere parte-hartze aktiboa erakutsiz, hau da, poster eta/edo komunikazioen bat aurkeztuz.



Prestakuntza ibilbidea (errotazioak)

Ondoren gure Unitatean Medikuntza Intentsiboko egoiliarrentzat jarraitzen dugun prestakuntza ibilbidearen hurbilpena aurkeztuko dugu. Espezialitatearen programa nazionalean oinarrituta dago bai eta lortu beharreko gaitasunetan ere, Batzorde Nazionalaren eta CoBaTryCe europar programaren arabera. Ez da programa zurruna ezta itxia ere, eta jakina, egoiliar bakoitzari egokitu ahal zaio, hau da, prestakuntza pertsonalizatu daiteke norberaren baldintzen arabera. Gainera, ospitalearen beraren behar kliniko-asistentzialen eta irakaskuntza-beharren menpe dago.

Gaitasunak egonaldia bukatzen denerako lortu behar dira, egoiliarrek erakutsi behar du trebatuta dagoela eta Medikuntza Intentsiboko Espezialista titulua eskuratu. Gure zerbitzua espezialitaterako gaitasunen programa garatzen ari da programa nazionalean eta CoBaTryCe europar dokumentuan oinarrituta:

1. urtea:	
• Medikuntza Intentsiboa	1 hilabete
• Kardiologia	2 hilabete
• Pneumologia	2 hilabete
• Medikuntza larrialdiak	2 hilabete
• Barne-medikuntza	3 hilabete*
• Anestesiologia	3 hilabete
2. urtea:	
• Nefrologia	2 hilabete**
• Infekziosoak	3 hilabete*
• Neurologia	2 hilabete**
• Ekokardiografia	2 hilabete*
• Unitate Koronarioa	4 hilabete** (E3ko zati bat)
3. urtea:	
• Medikuntza Intentsiboa	11 hilabete
4. urtea:	
• ELU (Emergentzietako Lurralde Unitateak):	1 hilabete
• Medikuntza Intentsiboa	7 hilabete
• Fibrobronkoscopiak	2 hilabete
• Pediatria Intentsiboak (PZIU):	2 hilabete
5. urtea:	
• Medikuntza Intentsiboa	9 hilabete
• Politraumatizatuak eta Neurokritikoak	3 hilabete



***Izartxoan duten errotazioak aldaketa prozesuan daude errotazio denborari dagokionez (etorkizuna: 2 hilabete barne-medikuntza zein infektiosorako eta 3 hilabete ekokardiografiarako)**

**** Izartxo bikoitza duten errotazioek espezialitate horretan guardiak derrigorrez egin behar direla adierazten dute.**

Egoiliarren prestakuntza-aldiak egin ditzake kanpoan, zentro nazionalan edo atzerrikoetan. Irakaskuntza Batzordearen eta gure zerbitzuaren arabera, Politraumatizatu zein Neurokrikiko arloetan kanpo-prestakuntza egitea aproposa da kaudimena eta prestigioa bermatzen duen hirugarren mailako ospitale batean. Era horretan, beste lan sistema batzuk eta beste antolaketa asistentzial eta ospitalario batzuk ezagutzeko, deskribatutako arloetan gaitasunak lortzen diren heinean. Gaur egun arte ospitale hauetan egin ditugu errotazioak: Santanderreko Marques de Valdecilla UO; Sevillako Virgen del Rocío UO; Madrileko 12 de Octubre UO; Bartzelonako Vall de Hebrón UO. Errotazioa atzerriko zentro batean egin daiteke egoiliarren hala eskatzen badu. Erabakia egoiliarren, tutoreak eta zerbitzuburuak hartuko dute, betiere baldintzak betetzen baldin badira.

Egonaldiak irauten duen 5 urteetan egoiliarren guardia medikoak egin behar ditu ospitalean bertan, gainera horiek beharrezkoak dira bere prestakuntzarako. Urtean 66 guardia egin beharko ditu (Ospitaleak gehienez ere baimendutakoak), hala ere, kopuru hau zertxobait handitu daiteke zerbitzuaren beharren arabera. 2004. urtetik guardia baten ondoren egoiliarrek atsedeen-egun bat hartzeko eskubidea dute. Guardiak 15:00etatik hurrengo eguneko 8:00etara egiten dira, lanegunetan (17 ordu asteleheneetik ostiralera) eta 10:00etatik hurrengo eguneko 10:00etara (24 ordu) larunbat, igande eta jaiegunetan.

- a. Egonaldiaren 1. urtean egoiliarren 4 guardia egingo ditu Medikuntzako Larrialdietako zerbitzuan eta 2 Medikuntza Intentsibokoan.
- b. Hurrengoetan egoiliarren Medikuntza Intentsiboko zerbitzuan egingo ditu guardia guztiak.
- c. Nefrologian eta neurologian egoiliarren gutxienez hilabetean 2 guardia egingo ditu, zerbitzuek erabakitzen duten ordutegian. Gaur egunera arte, guardia arratsaldeko ordutegian egiten da (7 ordu) eta ez dago hurrengo egunean atsedeen-eguna hartzeko eskubiderik. Zerbitzu horien beharren arabera alda daiteke.
- d. Unitate Koronarioan egoiliarren gutxienez 3 guardia egingo ditu (hobe 4 egitea), eta gainontzekoak Medikuntza Intentsiboan.

Espezialitateko egoiliarrentzat Guardia Medikoen Protokoloa daukagu zerbitzuan. Nabarmendu beharra dago gure espezialitateetan presentziako guardia medikoak ohikoak direla, eta prestakuntzari



dagokionez gaitasunak eskuratzeko lan-eremu bikaina. Tutoretza lana egiten duten bi mediko adjuntuk zerbitzuarekin partaidetza eta inplikazioa gehitzen dute eta horrek zerbitzuan integratzen ditu egoiliarak.

Espezialitatearen prestakuntza espezifikoa ematen duten ikastaroen artean hauek nabarmenduko genituzke (gure zerbitzuak gomendatuak):

- 1. Giltzurrun-garbiketarako teknikak.**
- 2. Paziente kritikoaren elikadura eta metabolismoa.**
- 3. Oinarrizko BBB (Bihotz-Biriketako Bizkortzea) eta BBB aurreratua.**
- 4. BBBko irakaslea.**
- 5. Trauma-arloko bizi-euskarri aurreratua (ATLS).**
- 6. Emateari eta transplanteari buruzko ikastaroak: emailearen mantenua, familiei informazioa, koordinazioa.**
- 7. Paziente kritikoaren ekografia.**
- 8. Neuromonitorizazioa.**

Ikastaro horiek egitea gomendagarria da, ezin ditugu derrigorrez eskatu, izan ere, beren antolakuntza eta aurrekontu ekonomikoa gure zerbitzutik zein medikuntza intentsiboko sozietate zientifikotik kanpo geratzen dira. Dena den, egoiliarak ikastaro horiek egitea bultzatzen dugu. Bestalde, Gurutzetako UOko Irakaskuntza Batzordeak egoiliarrei zuzendutako ikastaro multzoa garatu du, horietara joatea derrigorrezkoa da, presentziatzeko ikastaroak dira eta ospitaleko web orrialdean daude ikusgai.



Ikerkuntza

Ikerketa sostengatzeko Ospitaleak Biocruces Ikerkuntza Institutuaren laguntza dauka. 2014ko otsailean zerbitzuak ikerketa lerro hauetan parte hartu, gidatu edo lagundu du:

- ✓ “Factores inflamatorios precoces implicados en el daño pulmonar asociado a la ventilación mecánica”. Arratoi helduekin egindako ikerlana. Bukatua.
- ✓ “Efecto del surfactante aerosolizado en corderos prematuros”. Bukatua.
- ✓ “Estudio aleatorizado multicéntrico sobre el efecto de la dexametasona en el SDRA”.
- ✓ “Estudio Multicéntrico Español del Paciente Hematológico en UCI (EMEHU).”
- ✓ “Impacto de la anfotericina B liposomal sobre la función renal de pacientes en estado crítico con función renal alterada. (AMBISAFE-TDE).
- ✓ “HCAP, Healthcare-Associated Pneumonia”. Pneumonia larriaren ikerketa ZIUn: asistentzia sanitarioarekin lotutako infekzioen garrantzia (ZIU-HCAP).
- ✓ “ABISS-Edusepsis: AntiBiotic Intervention in Severe Sepsis.”
- ✓ “HEMOSEP: Identificación de nuevos biomarcadores de inflamación y activación linfomonocitaria para desarrollar nuevas herramientas diagnósticas en las sepsis graves y síndromes hemofagocíticos.”
- ✓ “ BACTERIEMIA ZERO”
- ✓ “NEUMONIA ZERO”
- ✓ “ ICULIP: Influence of Two Lipid Emulsions in the Nosocomial Infection in Critical Patients”
- ✓ “ Nutrition day”
- ✓ “PROCID: estudio observacional, prospectivo y multicéntrico, para determinar la incidencia de diarrea asociada a clostridium difficile, factores de riesgo y pronóstico en pacientes críticos en españa (estudio procríd).”
- ✓ “BIOFILM2: modelo experimental in vivo para el estudio y análisis de la generación, incubación y crecimiento de biofilm”
- ✓ “Estudio y análisis de la generación, incubación y crecimiento de biofilm en materiales poliméricos utilizados en el sector biomédico a fin de obtener potenciales soluciones en formato material (BIOFILM-CAT).”



Zerbitzua SEMICYUC elkartearekin elkarlanean ari da datu-baseak eta nazio mailako proiektuak egiten, hauek adibidez: ENVIN-HELLICS; Neumonía Zero proiektua; Bacteriemia Zero proiektua; A Gripe kasuen kontrol epidemiologikoa.

Farmakoaren Industriarekin ere ari da elkarlanean saiakuntza klinikoak egiten.

Egoiliarra mailaka hasten da ikerketa lanak egiten eta datu klinikoak batzen datu-baseetarako (zerbitzuko datu-baseak zein nazionalak). Egoiliarrak interesa badu doktorego-tesia egin dezake.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio gehiagorako:

[Ospitalea> Ospitalearen urteko memoria](#)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. “Ebaluazio formatiboa” deitutako ebaluazio-mota horretarako, Guruztetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du adostasunez, eta bertan, egoiliarraren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera **“Egoiliarraren Urteko Txostena”** osatzen dute. Tutorea prestakuntza-prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Guruztetako Unibertsitate Ospitaleko Anestesiologia eta Bizkortze Zerbitzuko BAMEek (Barneko Mediku Egoiliarrek) lortu beharreko gaitasunak XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-eremuetara egokitzen dira, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitate honi dagozkion asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketako gaitasunak [Medikuntza Intentsiboko espezialitatearen programa ofizialean](#) jasotzen dira. Gomendatzen dugu espezialitatearen programaren zirriborroa ikusteko [SEMICYUC](#) web-orrialdea bisitatzea eta [CoBaTryCe](#) web-orrialdea berriz, europar programa ezagutzeko.



Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra¹

Irakaskuntza Batzordeak eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio-sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den **“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”** proiektuaren parte da.

- Errotazio bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredua)
- Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- Autoebaluazioa
- Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlacionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

- Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze-inkesta bat bidaltzen die.
- Bi urtean behin, otsaila eta martxoaren bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da. Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.

Medikuntza Intentsiboko Zerbitzuaren berezko metodoak, Irakaskuntza Batzordeak Onartuak.

GEROZ ETA HANDIAGOA DEN ARDURA///GEROZ ETA TXIKIAGOA DEN GAINBEGIRATZEA

Irakaskuntza lanetan zerbitzu mediko batek duen ardurarik handiena egoiliarra ebaluatzea da. Horretarako jarreraren, jardueren, ezagutzen eta gaitasunen informazioa behar da eta horrekin guztiarekin epai bat eman mediku espezialista titulua luzatzeko. Prozesu horretan egoiliarrek berak bere prestakuntzarekiko ardura ere.

Egoiliar baten prestakuntza prozesuaren ebaluazioa prozesu sistematizatua izan behar da, gehitzen duena, egoiliarren indarrak eta ahultasunak bilatzen dituena hobetzeko helburuarekin. Horrez gain,

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrri M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Disponible en: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



noranzko biko eta parte-hartzailea izan behar da, hau da, egoiliarra bera da bere prestakuntza eta autoebaluazioaren arduradun nagusia, profesional ona izateko interes handien duena bera dela ulertzen baitugu. Horretarako, tutorearekin aldizka egiten diren batzarrak oso garrantzitsuak dira ikaskuntza prozesua aztertzen delako, ahulguneak, indarguneak, premiak edo behar diren aldaketak, eta era berean, ibilbide bat proposatzen da, hobetzeko plana eta ikasketa plan pertsonalizatua. Batzar horietan prestakuntzari buruz hausnartzen da, bai eta errotazioen arduradunak diren mediku adjuntuen ikuspuntuei buruz ere. Beren iritzia garrantzitsua da egoiliarrak ebaluatzeko orduan. Gure zerbitzuak ezaugarri bereziak ditu, bizikidetzaren denbora luzea da, paziente asko daude eta erizaintzarekin batera egindako lanak ere asko dira (mediku adjuntuen eta Unitateko gainontzeko langileen ikuspegia eta balorazioa), eta azken hori ezinbestekoa da prestakuntza prozesuan aurkitzen diren arazoak hobetzeko orduan.

Medikuntza Intentsiboko zerbitzuan ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak proposatutako ebaluazio metodoa jarraitzen dugu. Jada deskribatutako gaitasunen sisteman eta errotazio bakoitzean bete beharreko ebaluazio aktetan oinarrituta dago.

Ebaluaziorako garatzen ditugun jarduerak hauek dira:

- Egoiliarraren ikuspegi eta balorazio zuzena hainbat eremu edo gaitasunetan.
- Errotazioaren arduradunarekin batera egindako balorazioa. Behar bada, beste zerbitzuetako tutoreekin batzarra.
- Jardueren, lanen kontrola, ardura maila, lidergoa.
- Zerbitzuan integrazioa: langileekin eta zerbitzuaren jarduerekin (saioak, datu-baseak...)
- Lankidetzaren bere kideekin eta unitatean errotazioan dauden UPV/EHUko ikasleekin.
- Tutorearekin batzarra: urtean 4. Bilerak akta betetzen da.
- Egoiliarren batzar orokorra: urtean 2. Bilerak akta betetzen da.
- Errotazioko arduradun adjuntuek sinatutako errotazio-aktak.
- Urteko prestakuntza memoria.
- Tutoreak egindako eta zerbitzuburuak sinatutako urteko txostena.
- Tutoreak egindako eta zerbitzuburuak sinatutako Egonaldiaren azken txostena.
- Urteko balorazioa Ebaluazio Batzordearekin batera. (Irakaskuntza Batzordea, Ospitaleko ikasketaburua, zerbitzuburua eta Medikuntza Intentsiboko tutoreak)



Egoiliarra bere prestakuntzaren arduradun nagusia da mediku espezialista gisa. Gu laguntzeko gaude, ospitale honetan dituen posibilitate guztiak eskaintzeko, bere ikasketetan orientatzeko, ditugun ezagutza mediko guztien ezaugarriak transmititzeko, eta dagokigun larriena, ebaluatzeko.

“Gizarteak profesional onak izateko eta prestatzeko exijitzen digu”

Ongietorri Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Medikuntza Intentsiboko Zerbitzura. Gure helburua mediku adituak prestatzea da, gaitasun tekniko, zientifiko eta onbera dutenak eta, era berean, lanean lankide eta lagun direnak.



GUO / HUC
GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

Guruzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA.



MEDIKUNTZA INTENTSIBOA©